

# ATARIKO PROBA

## 4.HE

### 2. eredua

1. **Bila ezazu “atzeraeragin” hitzaren definizioa.**

- a) Bere garaian jaso gabe geratutako ordainsaria edo errenta, oraindik ere kobratu gabe dagoena.
- b) Administrazio organo batek duen gaitasuna, lehen emandako arau bat atzera berriz berraztertzekoa.
- c) Neurri edo arau batek berau baino lehenago gertatu diren egitate edo ekintzei aplikatua izateko duen indarra.
- d) Arau berriak ematerakoan alor horretan izandako aurrekariak aintzakotzat hartzera behartzen duen printzipio juridikoa.

2. **Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Bekadunek egin dituzten proposamenek adituenek adinako interes izan omen dute.
- b) Bekadunek egin dituzten proposamenak adituenak bezain interesgarriagoak izan omen dira.
- c) Bekadunek egin dituzten proposamenak adituenak bezainbateko interesgarriak izan omen dira.
- d) Bekadunek egin dituzten proposamenak adituenak bezain interesgarriak izan omen dira.

3. **Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.**

“Ekonomia gaietan aditu direnek diotenez, luzaroan diru-laguntza publiko oparoak jasotzea pizgarria izan liteke ezer ez egiteko. Harresia erori ondoren laguntzarik jaso ez duten herrialdeek - Txekiak, esaterako- sekulako jauzia egin duten bitartean, beste muturrean, Ekialdeko Alemania edo Italiako Hegoaldea bezalakoek, dirua barra-barra jaso arren, lehiakortasunaren *ranking*aren azken postuetan jarraitzen dute”.

- a) Ekialdeko Alemanian eta Italiako Hegoaldean diru-laguntza publikoak lehiakortasunean aurrera egiteko pizgarri izan dira.
- b) Txekiak bezala, harresia erori ondoren diru-laguntza publikoa jaso zuten herrialdeek ez dute aurrera egin lehiakortasunaren *ranking*ean.
- c) Ekialdeko Alemania eta Txekia, harresia erori ondoren diru-laguntza publiko oparoak jasoagatik, lehiakortasunaren rankingaren azken postuetan daude.
- d) Adituen ustez, diru-laguntza publiko oparoak jasotzeak, lehiakortasuna sustatu beharrean, oztopatu egin lezake.

4. **Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Espainiako Konstituzioaren lehen ..... dioenez, foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatuko dira.

- a) xedapen gehigarriak
- b) zehapen eransgarriak
- c) zehazpen gehigarriak
- d) ebazpen eransgarriak

5. Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.

Legeak ..... egiten ditu maila bereko edo beheragoko arau guztiak, legean bertan ezarritakoaren aurka daudenean.

- a) deuseztatu
- b) indargabetu
- c) ezeztatu
- d) baliogabetu

6. Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.

- a) Philip Manskell-ek, MSC bankuko zuzendariak, bere kargua utzi behar izan du akziodunen batzarraren gehiengoak eskatuta.
- b) Philip Manskell-ek –orain arte MSC bankuko zuzendaria- bere kargua utzi behar izan du akziodunen batzarraren gehiengoak eskatuta.
- c) Philip Manskell, MSC bankuko zuzendariak, bere kargua utzi behar izan du akziodunen batzarraren gehiengoak eskatuta.
- d) MSC bankuko zuzendari Philip Manskell-ek bere kargua utzi behar izan du akziodunen batzarraren gehiengoak eskatuta.

7. Aukera ezazu bukaera egokia.

Oinarri hauen xedea da euskaraz argitaratutako liburuak hautatzeko prozedura arautzea, gero liburu horiek Gipuzkoako lurralde historikoko ikastetxeei dohaintza gisa banatzeko, euskarazko liburugintzan ari diren argitaletxeen jarduerari sustapen eta diru- laguntza bideak eman nahirik. ....

- a) Hala ere, hautespen honen bitartez eskuratutako liburuekin irakurtzaletasuna bultzatu nahi da.
- b) Halaber, argitaletxe horien bitartez ikasleen irakurtzaletasuna moteldu nahi da.
- c) Hala ere, argitaletxe horien bitartez irakurtzaletasuna bultzatu nahi da, batez ere.
- d) Halaber, hautespen honen bitartez eskuratutako liburuekin irakurtzaletasuna bultzatu nahi da.

8. Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?

Osoko bilkuraren eraketak balioa izango du lehendakaria, idazkaria, edo horien ordekoak, eta gutxienez kideen erdiak eta bat gehiago elkartzen badira, lehen deialdian; eta bigarren deialdian, kideen heren bat ..... elkartuz gero.

- a) behin edo behin
- b) bederen
- c) behinik behin
- d) behintzat

9. **Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Ez dago nolabaiteko morrontzarik ez dakarren garapen ekonomikoa.
- b) Ez dago nolabaiteko morrontzarik ez dakarrenik garapen ekonomikorik.
- c) Ez dago garapen ekonomikorik nolabaiteko morrontzarik ez dakarrenik.
- d) Ez dago nolabaiteko morrontzarik ez dakarrenik garapen ekonomikoa.

10. **Non dago "doikuntza" OKER erabilia?**

- a) Epaitegiaren ustez, aurrekontuaren likidazioan doikuntza batzuk egin behar dira.
- b) Lehiakorrago izateko kostuak murriztu behar direnez, soldaten doikuntza proposatu dute, beste zenbait neurriren artean, enpresarien elkarrekin.
- c) Nahiz eta herrialde gehienetan biztanleriaren joera goranzkoa izan, zenbait kasutan doikuntza begetatiboa negatiboa da.
- d) Horrelako makinak aspalditik zeuden automatizatuta, baina erabilaldi bakoitzeko makinaren doikuntza egin beharra zegoen, automatismoak konektatuko baziren.

11. **Zein da gaiaren aldetik desberdina den esaldia?**

- a) Tokiko ogasunek dituzten gabeziak nabarmenak dira, zerga-sistemaren arrakastarako ezinbestekoa baita administrazio egokia eta eraginkorra izatea.
- b) Zerga-sistema batek jarraitu behar dituen printzipioen artean ez da neutraltasunarena ahaztu behar.
- c) Tokiko ogasunaren azken erreformak sistema gehiegi sinplifikatzera jo duela esan daiteke inolako zalantzarik gabe.
- d) Udal administrazioaren kudeaketa-gaitasunak baldintzatzen du zerga-sistemaren erreforman noraino iritsi gaitzkeen.

12. **Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Alemanian, gizarte gastuak murriztu diren arren, defizit publikoak gora egiten jarraitu du, eta abendura bitartean aldaketarik ez badago, baliteke defizita ..... %4ra iristea.

- a) barne-produktu gordinaren
- b) barne-produktu osoaren
- c) barne-ekoizpen osoaren
- d) barne-ekoizpen gordinaren

**13. Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Sailburuak egoki iritzi du Europako Batzordeak onartu berri duen zuzentaraua.
- b) Sailburuak egoki deritzo Europako Batzordeak onartu berri duen zuzentarauari.
- c) Sailburua Europako Batzordeak onartu berri duen zuzentarauari egokia dela iruditu zaio.
- d) Sailburuari egoki iritzi dio Europako Batzordeak onartu berri duen zuzentarauak.

**14. Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko pentsioa Espainiako estatukoa baino %27 handiagoa da: Alde nabarmen horren arrazoia honako hau da nagusiki; hemen hedatuago dago erregimen orokorra, kotizazio oinarri handienak dituen erregimena, hain zuzen ere; aitzitik, oinarri txikiagoak dituzten erregimenek -nekazarien erregimena adibidez- pisu txikiagoa dute.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko pentsioa Espainiako estatukoa baino %27 handiagoa da. Alde nabarmen horren arrazoia honako hau da nagusiki; hemen hedatuago dago erregimen orokorra, kotizazio oinarri handienak dituen erregimena, hain zuzen ere, aitzitik; oinarri txikiagoak dituzten erregimenek, nekazarien erregimena adibidez, pisu txikiagoa dute.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko pentsioa Espainiako estatukoa baino %27 handiagoa da. Alde nabarmen horren arrazoia honako hau da nagusiki: hemen hedatuago dago erregimen orokorra, kotizazio oinarri handienak dituen erregimena, hain zuzen ere, aitzitik, oinarri txikiagoak dituzten erregimenek -nekazarien erregimena adibidez- pisu txikiagoa dute.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko pentsioa Espainiako estatukoa baino %27 handiagoa da. Alde nabarmen horren arrazoia honako hau da nagusiki: hemen hedatuago dago erregimen orokorra, kotizazio oinarri handienak dituen erregimena, hain zuzen ere; aitzitik, oinarri txikiagoak dituzten erregimenek -nekazarien erregimena adibidez- pisu txikiagoa dute.

**15. Aukera ezazu testuarekin bat datorren esaldia.**

“Talde egonkorretan lankidetzan jardunez gero, banakoa hobeto integratzen da. Horretaz gain, norbanakoen eta organizazioen ikaskuntzaren garapen esponenziala ere gertatzen da. Horixe da gaur egun talde-lanak pizten duen interesaren gakoa: ezagutzaren aroan gaude eta ideiak, jakintza edo zientziaren aplikazioak garatzen laguntzen duen guztiak aurrera eragiten dio gizadiari”.

- a) Teknologiaren garaian gaudenez, jakintzari eta zientziaren aplikazioei laguntzen dien guztia onuragarria da gizartearentzat.
- b) Talde egonkorretan jarduteak norbanakoen eta organizazioen ikaskuntzaren garapena dakar.
- c) Talde egonkorretan elkarlanean aritzeak norbanakoen eta bezeroen ikaskuntza areagotzen du.
- d) Talde-lan egonkorrak norbanakoen eta organizazioen integrazioaren garapen esponenziala dakar.

**16. Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?**

Azken urteetan nekazaritza ekologikoan lanean ari direnen kopurua hazi egin bada ere, landutako azalera ozta-ozta iritsi da 270.000 hektarea izatera, merkatu hasi berria den seinale. ...., adituek onuragarritzat jotzen dituzte datu horiek, nekazaritza industrialaren alternatiba gisa agertzen den sektorea merkatuak gero eta onartuagoa baitu.

- a) Edonola ere
- b) Hala eta guztiz ere
- c) Dena dela ere
- d) Nolanahi ere

**17. Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.**

“Aditu talde batek egin duen lanean hamasei adierazle bildu dira hezkuntza sistema bat kalitatezkoa den erabakitzeke eta zer neurtu behar den zehazteko. Kalitateak neurgarria izan behar du, zenbaki batzuetan zehaztu behar da. Hezkuntza sistema batean garrantzitsuak dira, adibidez, zein maila ematen duen herrialde batek “oinarrizko konpetentzietan”, zein den biztanleriaren hezkuntza maila, edo zein den sistematik goizegi ateratzen diren ikasleen kopurua”.

- a) Hezkuntza sistemaren kalitatea herrialdez herrialde.
- b) Etengabeko hobekuntza hezkuntza-sisteman.
- c) Herrialdeen oinarrizko konpetentziak neurtzeko sistema.
- d) Hezkuntzaren kalitatea neurtzeko adierazle-sistema.

**18. Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Ministroen Kontseiluak dekretu bat onartu du, dendak zenbat igandetan zabal daitezkeen arautzen duena.
- b) Ministroen Kontseiluak dekretu bat onartu du, dendak zenbat igandetan zabal daitezkeen arautuz.
- c) Ministroen Kontseiluak dekretu bat onartu du, dendak zenbat igandetan zabal daitezkeen arautzeko.
- d) Dendak zenbat igandetan zabal daitezkeen arautzeko asmoz, Ministroen Kontseiluak dekretu bat onartu du.

**19. Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Kontu-ikuskariaren txostenaren arabera, ez zegoen diruzaintzan kontrol eraginkorrik, ezta zordunen eta ..... saldoen jarraipenik ere.

- a) hartzekodunen
- b) agiridunen
- c) zorgabetuen
- d) zorgabeen

**20. Aukera bat EZ da ondo txertatzen hutsunean. Zein?**

Portuko zerbitzu batzuk arrantza, merkataritza eta itsas kiroletako ontzi guztientzat dira: atrakalekuak, ainguratzeko lekua, horniketa, etab. Beste batzuk, ....., zehatzagoak dira, arrantza-ontzientzat soilik: arraina prestatu eta saltzeko lonjak, izotz-fabrikak, sareentzako aterpeak eta lanabesentzako biltegiak.

- a) ostera
- b) aldiz
- c) osterantzean
- d) ordea

**21. Aukera ezazu hasiera egokia.**

....., herrialdeen arabera banatu baitituzte, eta ez industrien arabera. Zalantzarik gabe esan liteke eskubide gehiegi lortu dituela energia sektoreak, eta gutxiegi industriak. Horrez gain, Kiotoko Itunaren alboko kalteak ere aipatu izan dira: Txinak, Estatu Batuek, Indiak eta beste zenbaitzuek ituna bere egin ez dutenez, deslokalizazioak areagotu egin daitezke.

- a) Kiotoko Itunean CO<sub>2</sub> isurtzeko eskubideak behar bezala banatu dira
- b) Kiotoko Itunean ez dira CO<sub>2</sub> isurtzeko eskubideak kontuan hartu
- c) Kiotoko Itunean CO<sub>2</sub> isurtzeko protokoloak behar bezala banatu dira
- d) Kiotoko Itunean ez dira CO<sub>2</sub> isurtzeko eskubideak behar bezala banatu

**22. Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Ustekabeko gertaera askori egin behar izan diegu aurre denbora gutxian, guztira hiru milioiko gastuari.
- b) Ustekabeko gertaera askori egin behar izan diegu aurre denbora gutxitan, guztira hiru milioiko gastuari.
- c) Ustekabeko gertaera askori egin behar izan diegu aurre denbora gutxitan, guztira hiru milioitako gastuari.
- d) Ustekabeko gertaera askori egin behar izan diegu aurre denbora gutxian, guztira hiru milioitako gastuari.

**23. Bila ezazu "enkante" hitzaren definizioa.**

- a) Pertsona fisiko edo juridiko batek burtsan kotizatzen duen sozietate jakin bateko akziodunei haien tituluak erosteko prest dagoela publikoki jakinaraztea.
- b) Jendaurreko salmenta-mota, gehien eskaintzen duenari salgaia ematen zaiona.
- c) Kontsumitzailea diru-kopuru jakin baten truke eskuratzeko prest dagoen ondasun- edo zerbitzu-kantitatea.
- d) Negozioa uzteagatik edo komeni ez diren izakinei irteera emateko salgaiak prezio apalean saltzea.

**24. Aukera ezazu esaldi zuzena.**

- a) Telezaborra benetako arazo bihurtzen ari delaren ustea oso zabaldua dago.
- b) Telezaborra benetako arazo bihurtzen ari den ustea oso zabaldua dago.
- c) Telezaborra benetako arazo bihurtzen ari denaren ustea oso zabaldua dago.
- d) Telezaborra benetako arazo bihurtzen ari delakoaren ustea oso zabaldua dago.

**25. Aukera ezazu ondorengo testuari ondoen egokitzen zaion izenburua.**

“Europar herrialde bakoitzak bere unibertsitate-sistema du. Hori dela-eta, eredu estatubatuarraz hitz egin daiteke, baina ez eredu europarrak. Europar, Estatu Batuetan bezala, unibertsitate asko daude, hainbat tamaina eta helburu dituztenak, baina lehenengo kasuan aniztasun hori estatuen zurruntasunak baldintzatzen du, eta bigarrenengoan, aldiz, aniztasuna berezkoa eta malgua da. Europar gehiegi arautzen da bizitza unibertsitarioa, unibertsitate bakoitzaren errealitatea kontuan izan gabe. Estatu Batuetan, berriz, ia ez dago arautze federalik”.

- a) Estatu Batuetako unibertsitate-sistemaren zurruntasuna, Europakoaren aldean.
- b) Europako unibertsitateen aniztasuna eta malgutasuna, Estatu Batuetakoen aldean.
- c) Unibertsitate-sistemen tamaina eta helburuak Europar eta Estatu Batuetan.
- d) Estatu Batuetako eta Europako unibertsitate-sistemen arteko desberdintasunak.

**26. Non dago “esleipen” OKER erabilita?**

- a) Administrazioaren erabaki bat betearazteak kalte konponezinak ekar ditzakeela ikusten bada, dagokion organoak erabaki dezake erabaki horren esleipena.
- b) Sailburuak, ebaluazio batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, diru-laguntzen esleipena ebatziko du.
- c) Funtzio Publikoaren zuzendariak ebazpen baten bitartez egingo du funtzionario berrien izendapena eta lanpostuen esleipena.
- d) Obra-kontratuen esleipena ekitaldiko lehenengo seihilekoan egin behar da, horrela lortuko baita obraren programazio egokia egitea.

**27. Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Jarraipen batzordeak hiru urtez behin berrikusten du alor horretan indarrean dagoen plan orokorra.
- b) Jarraipen batzordeak hiru urterik behin berrikusten du alor horretan indarrean dagoen plan orokorra.
- c) Jarraipen batzordeak hiru urtero behin berrikusten du alor horretan indarrean dagoen plan orokorra.
- d) Jarraipen batzordeak hiru urtean behin berrikusten du alor horretan indarrean dagoen plan orokorra.

**28. Non dago "bateragarritasun" OKER erabilia?**

- a) Etorkinen eskubideen aldeko plataformak aurkeztu duen testuari bateragarritasuna azaldu diote zenbait idazle eta artista ezagunek.
- b) Arlo publikoan lanpostua hartzera doan izangaiak bateragarritasuna lortu beharko du edo arlo pribatuko lanpostua utzi, arlo publikoko jarduerak betetzen hasi aurretik.
- c) DVD grabagarrien eta DVD erreproduzitaileen arteko bateragarritasuna %85ekoa baino ez denez, erreproduzitaile jakin batean ez da posible edozein egileren DVDak irakurtzea.
- d) Udalaren eta beste erakunderen baten diru-laguntzen artean ez da bateragarritasun arazorik izango, baldin eta laguntzen batura ekintzaren kostu osoa baino handiagoa ez bada.

**29. Aukera ezazu puntuazio-markak egoki jarrita dauzkan aukera.**

- a) Lan Harremanen Kontseiluak egin duen txostenak zenbait proposamen interesgarriren artean, gogoetarako elementu asko jaso ditu. Organoaren osaera desegokiaz dienez gain, bada hausnarketarako gai nagusi bat; kontseilu horri ematen zitzaizkion funtzioekin zerikusia duena. Izan ere orain arte aholkua emate hutsezko funtzioak izan dira organoak bete dituenak, enplegu politika aktiboak diseinatzen izan ditzakeen arduretatik oso urrun zeudenak.
- b) Lan Harremanen Kontseiluak egin duen txostenak, zenbait proposamen interesgarriren artean, gogoetarako elementu asko jaso ditu. Organoaren osaera desegokiaz dienez gain, bada hausnarketarako gai nagusi bat, kontseilu horri ematen zitzaizkion funtzioekin zerikusia duena. Izan ere, orain arte aholkua emate hutsezko funtzioak izan dira organoak bete dituenak, enplegu politika aktiboak diseinatzen izan ditzakeen arduretatik oso urrun zeudenak.
- c) Lan Harremanen Kontseiluak egin duen txostenak, zenbait proposamen interesgarriren artean gogoetarako elementu asko jaso ditu. Organoaren osaera desegokiaz dienez gain, bada, hausnarketarako gai nagusi bat: kontseilu horri ematen zitzaizkion funtzioekin zerikusia duena. Izan ere, orain arte aholkua emate hutsezko funtzioak izan dira organoak bete dituenak, enplegu politika aktiboak diseinatzen izan ditzakeen arduretatik oso urrun zeudenak.
- d) Lan Harremanen Kontseiluak egin duen txostenak, zenbait proposamen interesgarriren artean gogoetarako elementu asko jaso ditu. Organoaren osaera desegokiaz dienez gain, bada hausnarketarako gai nagusi bat, kontseilu horri ematen zitzaizkion funtzioekin zerikusia duena: Izan ere, orain arte aholkua emate hutsezko funtzioak izan dira organoak bete dituenak, enplegu politika aktiboak diseinatzen izan ditzakeen arduretatik oso urrun zeudenak.

**30. Aukera ezazu OKER dagoen esaldia.**

- a) Udalak atzoko bileran erabaki zuen non egingo den urteroko ganadu feria berezia.
- b) Kalifikazio berria jaso duten lur-sailen artean dago Larrabe poligonoa, non eraikiko baita herri honek behar duen industrialde berria.
- c) Hain ugariak izan dira jaso dituzten eskabide-orriak, non ez dutela beste langile bat kontratatu beste erremediorik izan.
- d) Lehiakortasun arazo handiak izango dituzte, non eta ikerketan eta berrikuntzan ahalegin handiagoa egiten ez duten.

---

**ORDEZKO GALDERAK**

**31. Zein da gaiaren aldetik desberdina den esaldia?**

- a) Internet baliabide globala denez, elkarrengandik urrun dauden enpresen eta gizabanakoen harremanak errazten ditu.
- b) Interneten kudeaketa informazioaren gizartearen agendako gairik funtsezkoenetakoa da.
- c) Interneten nazioarteko kudeaketak alde askotakoa, gardena eta demokratikoa izan behar luke.
- d) Gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta nazioarteko erakundeen inplikazioa behar da interneten kudeaketan.

**32. Bete ezazu hutsunea termino egokia aukeratuta.**

Administrazioak hartutako erabakiaren berri eman behar die interesdunei. Horretarako, hamar eguneko epea du interesdun horiei ..... bidaltzeko.

- a) jabeazpena
- b) adierazpena
- c) kontuarazpena
- d) jakinarazpena

## ATARIKO PROBA - 4.HE

2. eredua

### ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

|     |          |     |          |     |          |     |          |     |          |
|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|-----|----------|
| 1.  | <b>C</b> | 2.  | <b>D</b> | 3.  | <b>D</b> | 4.  | <b>A</b> | 5.  | <b>B</b> |
| 6.  | <b>C</b> | 7.  | <b>D</b> | 8.  | <b>A</b> | 9.  | <b>C</b> | 10. | <b>C</b> |
| 11. | <b>B</b> | 12. | <b>A</b> | 13. | <b>B</b> | 14. | <b>D</b> | 15. | <b>B</b> |
| 16. | <b>C</b> | 17. | <b>D</b> | 18. | <b>B</b> | 19. | <b>A</b> | 20. | <b>C</b> |
| 21. | <b>D</b> | 22. | <b>A</b> | 23. | <b>B</b> | 24. | <b>B</b> | 25. | <b>D</b> |
| 26. | <b>A</b> | 27. | <b>C</b> | 28. | <b>A</b> | 29. | <b>B</b> | 30. | <b>C</b> |

#### ORDEZKO GALDERAK

|     |          |     |          |
|-----|----------|-----|----------|
| 31. | <b>A</b> | 32. | <b>D</b> |
|-----|----------|-----|----------|